

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko ekainaren 9a. VIII. urtea. 2.241. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Tolosaldeko ikasleek elikaduraren inguruko hausnarketa egin dute

Eskolako Agenda 21eko III. Topaketa izan da Tolosako Musika Eskolan; eskualdeko gazteek elikaduran oso bestelakoak diren errealitateak dituztela ikusi dute

Tolosako Ingurumen Zentroko arduradunek argitu dutenez, herrien arteko harremanak sendotzea eta gazteek elkar ezagutzea ere izan dute helburu 03

## Bihar izango da Asvineneako V. Poltsikoko Antzerki Lehiaketako finala

Lau lan ikusi ahal izango dira 22:30etik aurrera Adunan: 'Maitetasuna', 'Eguzkilore', 'Zintzilik' eta 'El león y la cigala' 04

## Berastegiko Antziolaren aldeko jaialdia antolatu dute etzirako

17:00etan hasiko da apirilaren 15ean erretako baserriaren aldeko herri kirolen festa 06

## Ordizia eta Irura arteko tartean dagoen radarra hasi da ofizialki funtzionatzen

Atzotik hasita, N-1 errepideko tarte honetan egiten diren arau-hausteeak isuna izango dute 02



Ikasleak Eduardo Mokoroa musika eskolan bildu ziren atzo goizean zehar. I. URKIZU

### tolosaldea.hitza.info

herrietako informazioa  
inoiz baino gertuago  
ezagutu gure webgune berriak

- ibarraldea.hitza.info
  - alegialdea.hitza.info
- anoetaldea.hitza.info
  - villabona-aiztondo.hitza.info
- leitzaldea.hitza.info
  - tolosa.hitza.info



**itzulpen-enpresak**  
langilea behar du bulagoan lan egiteko (Tolosan).

#### Eskatzen da:

- Itzulpengintzan edo Euskal Filologian lizentziatua.
- Hizkuntzak jakitea eta itzulpenak / zuzenketak egiten esperientzia izatea kontuan hartuko da.

Interesdunek bidali CVa helbide honetara:  
saretik@saretik.eu  
Epea: ekainak 16.



# N-leko tarteko radarrak jasotako arau-hausteak isuna izango du

Ordizia eta Irura arteko tartea hartzen du radarrak; istripuak %33 jaitsi dira probaldiko bi hilabeteetan

Imanol Garcia

Eusko Jaurilaritzako Trafiko Zuzendaritzak joan den martxoaren 23an jakinarazi zuen N-1 errepideko 421 eta 440 kilometroen artean, Ordizia eta Irura bitartean, Donostiako noranzkoan, tarteko radar bat jarriko zutela, probaldian. Atzotik «benetan» funtzionatzen hasi da, Trafiko Zuzendaritzatik azaldu dutenez. Hau da, legezko abiadura gainditzen dutenek isunak jasoko dituzte.

Martxoaren 28tik maiatzaren 31ra istripuek %33 egin dute behera, Trafiko Zuzendaritzak emandako datuen arabera, eta baimendutakoa baino abiadura handiagoan (100 kilometro orduko autoentzat eta 80 kilometro orduko kamioientzat) zihozten ibilgailuen kopurua ere jaitsi da, %8 ibilgailu arinen kasuan eta %11 ibilgailu astunetan. Horren guztiaren ondorioz, «trafikoaren arintasuna hobetu egin da, eta auto-pilaketak gutxitu egin dira», azaldu du Trafiko Zuzendaritzak.

## 2.178 isun barkatuta

Probaldian egon den bi hilabeteetan, baimendutakoa baino batez besteko abiadura handiagoan zihozten mota guztietako 2.178 ibilgailu hauteman ditu N-1eko



Irurako Laskibar zubiaren ondoan dago radarra. I. GARCIA

radarrak. Gidariei ez zaie isunik jarriko sistema hau probaldian zegoelako. «Ofizialki» martxan jarri denetik, hautematen diren arau-hauste guztiak zigortu egingo dira, eta isun ororen legezko prozesua jarraituko dute.

N-1ean jarri duten tarteko radarraren sistema aitzindaria da. Espainian ezarri den aurrenekoetakoa da eta aire zabalean, tunel batetik kanpo, jarri den lehena. Adituen arabera, denborarekin, sistema berri hau ohiko radar finakoak ordezkatzu joango da. Izan ere, ohiko radarra ez bezala, tarteko sistemak puntu bakar batean izan beharrean, tarte oso batean bermatzen du abiaduraren kontrola. Horrela, balaztadak eta bat-bateko maniobrak bezalako jarraera arriskutsuak ekidin dira.

Sistemaren funtzionamendua erraza da: Tartearen hasiera, bide gaineko arkupe batean jarritako

dispositiboak azpitik igarotzen diren ibilgailuen abiadura hautematen du. Halako beste sistema batek gauza bera egingo du ibilgailua errepide-tartetik irteteen. Horri esker, batez besteko abiadura kalkulatu du, tartea igarotzeko behar izandako denboraren arabera. Baimendutako gehieneko abiadura gainditzen badu, dispositiboak argazki bat aterako dio. Arau-haustea egin duen ibilgailuaren informazioa automatikoki bidaliko da, dagokion zehapen-espeditentea ireki diezaioten.

## Hildakoa, A-15eko istripuan

Auto gidari bat hil zen atzo arratsaldean A-15 autobian, Leitza paretan, ibilgailua errepidetik atera ondoren.

Nafarroako Gobernuak azaldu-takoaren arabera, hildakoa Anoetako 58 urtetako gizona da. Ustez gidaria bakarrak zihonan autoan.



Lizartzako Sorginak taldeko kideak. HITZA

# Eskualdeko bi talde, Haur Kantu Lehiaketaren finalean

Lizartzako Sorginak eta Irurako Irurako Neskak taldeak dira Hazparnen parte hartuko dutenak

I. Garcia

Euskal Herriko Haur Kantu Txapelketaren finala jokatu da, larunbatean, Hazparnen (Lapurdi), eta bertan izango dira eskualdeko bi talde: Sorginak, Lizartzakoa, eta Irurako Neskak, Irurakoa. Mendeala aretoan izango da saioa, 15:30ean.

Beasain eta Usurbilen udaberrian izan ziren Haur Kantari Jaialdietatik, Gipuzkoako Kantuzale Elkarteak lau ordezkari hautatu zituen Hazparneko final han-

dian abesteko. Gaztettoen artean ariko dira eskualdeko bi taldeak, hau da, 6 eta 10 urte bitarteko sailean. Sorginak taldea Irune eta Saioa Arrospeide, Maddi Bengoetxea eta Enara Goikoetxea lizartzarrek osatzen dute. Finalean Urretxindorrek taldearen *Iguriko Boluan* abestia kantatu eta dantzatuko dute. Musika lagun Amets Esnaola, gitarran, Garazi Esnaola, pianoan, eta Jesus Mari Esnaola, akordeoian, izango dituzte.

Irurako Neskak taldea Ane Amondarain, Iratxe Iturbe, Ane Izagirre eta Garazi Karrerak osatzen dute. Abesti bat sortzea erabaki zuten, *Nire argi txikia izenokoa*, eta txapelketara aurkeztea. Usurbilgo kanporaketan parte hartu zuten eta finalerako sailkapena lortu zuten.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA** Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakoitzak bere neuriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenaz, aukera ekonomiko gutxieta ere egokitzten diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena emazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA** EHOZKETA

902 402 900

www.funerariavascongada.com

## Hondakinen kudeaketari buruzko ikastaroa antolatu dute

Enpresei zuzenduriko saiok dira, eta ekainaren 14an hasita, uztaillaren 5ean amaituko dira

**I. Urkizu** Tolosa

Tolosalde Garatzen-ek eta Eusko Jaurlaritzaren ingurumen kudeaketarako Ihohe sozietate publikoak, hondakinen kudeaketari buruzko ikastaro espezializatuak antolatu dituzte enpresentzat, Tolosan.

Ihobek, Tolosaldea Garatzen-ekin elkarlanean, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei eza-gutza transmititzeko prozesu bat hasi du, *2010-2014 Ekofizientzia Programa* deiturapean.

Bide honetan, ezagutzaren transmisio hau lan-tailarren bidez egingo dute, eta tailer hauetarako batzuku Tolosan ospatuko dituzte, ekainaren 14an hasi, eta uztaillaren 5a bitarte, aipaturiko hondakin kudeaketaren ikastaroan.

### Lau eguneko ikastaroa

Ikastaroa ekainaren 14an hasiko da, hondakin ez arriskutsuen kudeaketarekin; egungo hondakin ez arriskutsuak zein diren landuko dute, eta baita hauek nola kudeatu behar diren ere.

Ekainaren 21ean eta 28an, eta uztaillaren 5ean, berri, hondakin arriskutsuen kudeaketa izango du hizpide ikastaroak. Lehengo saioan sektore bakoitzeko hondakin arriskutsuen identifikazioa eta hauek etiketatze metodoa jorratuko dituzte. Ekainaren 28ko saioan, berri, hondakinak identifikatu ondoren hauek barruan eta kanpoan nola kudeatu behar diren irakatsiko diete bertaratuei. Azkenik, uztaillaren 5eko azken saioan, enpresa hondakin arriskutsuen ekoizle txiki moduan nola erregistratu behar den azalduko dute.

Saio bakoitza bi ordukoa izango da, 09:30ean hasi eta 11:30ak bitarte, eta Tolosaldea institutuaren zuzendakariaren arabera.

### Izena aurretik eman beharra

Izen-emateari dagokionez, aurretik egin behar da, antolatzaileei entzule kopurua zein izango den jakitea komeni baitzaie.

Horretarako, eta informazio gehigarria eskuratzeko, 943 65 45 01 telefonora dei daiteke, eta baita *enpresa@tolosaldea.net* helbidera idatzi ere. Era berean, San Estebaneko dagoen Tolosaldea Garatzen-era ere joan daiteke.

# Gazteenek elikagaiak izan dituzte hizpide, Agenda 21eko III. Topaketan

Eskolako Agenda 21eko eskualdeko hirugarren topaketa egin zuten atzo, Tolosako Musika Eskolan

**Itzea Urkizu** Tolosa

Eskolako Agenda 21 ekimenaren barruan, Tolosaldeko III. Topaketa izan zen atzo goizean, Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskolan.

Eskolako Agenda 21 proiektuan parte hartu duten ikastetxe-etako ikasleek, irakasleek eta Tolosako Ingurumen Zentroko langileek parte hartu zuten, ikasturte honetan landu duten elikaduraren inguruko ondorioak, hausnarketak nahiz proposamenak aurkezteko ekitaldian.

Duela hilabete inguru, herri bakoitzeko ikastetxe-etako ikasleak bildu ziren, herrikideen aurrean egindako lana eta hartutako konpromisoak aurkezteko. Atzoko topaketan, ordea, elkarrengandik oso gertu bizi diren gaztetxoek

errealitateak oso bestelakoak izan daitezkeela ikusi ahal izan zuten ikasleek: «Aurtengo gaia elikadura izanik, Tolosan bizi den gazte batek, behar bada, supermerkatuan egingo du erosketak askotan; adin bereko Adunako gazteak, ordea, baliteke etxe ondoan duen baratzeako produktuak egunero kontsumitzea», azaldu dute Tolosako Ingurumen Zentroko arduradunek. Elikadurari dagokion errealitatea, beraz, oso desberdina izan daiteke kilometro gutxitan, eta hori helaraztea lortu nahi izan zuten atzoko ekitaldian. Horretaz gain, herrien arteko harremanak sendotzea eta elkar ezagutzea ere bultzatu nahi izan dituzte.

### Elikadura aztergai

Aurten, aipatu bezala, elikadura izan da Eskolako Agenda 21en ardatz nagusia, eta ikasleek beren eskolako eta herriko diagnostia egin dute, horretarako zikloa hainbat atal landuz.

Haur Hezkuntzako ikasleek, garaian garaiko fruituak eta barrazkiak identifikatzen ikasi dute,

panel batzuen bitartez. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak, aldiz, elikadura osasuntsura begira aritu dira lanean, jateko ohiturak eta ariketa fisikoa bezalako gaietan sakonduz. Era berean, 3. eta 4. mailakoak herriko denetako produktuak identifikatzen eta jatorri desberdinak ezagutzen aritu dira ikasturtean zehar. Azkenik, Lehen Hezkuntzako zaharrenek, 5. eta 6. mailakoez, kontsumo ohiturak aztertuko dituzte herritarrei egindako galdetegietatik abiatuta; bide beretik, nekazaritza ekologikoaz eta baserriaren ondare kulturalaz ere aritu dira.

Bigarren Hezkuntzan, kontsumo taldeak eta baserriaren etorkizuna izan dituzte hizpide alde batetik; bestetik, transgenikoak eta hauen inguruko legedia ere aztertu dituzte.

Azkenik, batxilergoko ikasleek emakumeek baserrian dituzten egitekoak aztertu dituzte, eta horrekin batera, gosea ere ardatz izan dute. Datorren ikasturtean, biodibertsitatea izango da, ikasleek landuko duten gaia

## → Laburrak

### Bakarrizketak izango dira bihar, Errota tabernan

**TOLOSA** Errota tabernan, bakarrizketak izango dira bihar gauetan. 20:00etatik aurrera, Ione Gorostazar, Olatz Etxeberria eta Xabier Barriola berastegiarrak ariko dira, eta hauekin batera, Barry Barrez irlandar-euskalduna ere izango da.

### Mendekoste eguneko gaubeila Santa Marian

**TOLOSA** Datorren larunbatean, hilak 11, Mendekosteko gaubeila ospatuko dute Santa Maria parrokiaren, Pastoral Barrutiko pastoralgile eta eliztar guztientzat, Espiritu Santuaren dohaina eskatuz. Ospakizuna iluntzeko 20:30ean hasiko da.

### Bengoetxeak jokatu du buruz buruko finala

**LEITZA** Oinatz Bengoetxea leitzarrek jokatu du buruz buruko finala, ez Yves Salaberri Xala-k. Hala erabaki zuen atzo arratsaldean Borja Osés Enprezen Ligako epaileak. Beste aukera Xalari bost eguneko epea ematea zen, bere osasun egoeraren bilakaera ikusteko, baina ezin da bermatu uztaillaren 3rako ondo egongo denik.

### Ezker abertzalearen balorazio batzarra, gaur

**TOLOSA** Gaur, iluntzeko 20:00etatik aurrera, Tolosako ezker abertzaleak batzarra ospatuko du Kultur Etxean. Hauteskundearen balorazioa burutzeaz gain, aurrerantzean dituzten erronkak ere hizpide izango dituzte.

### Bular-emate kolektiboa izango da larunbatean

**TOLOSA** Etzi, hilak 11, bular-emate kolektiboa izango da Aranburu jauregiko berdegunean, 11:00etatik aurrera. Edoskitzea normalizatzea eta sustatzea da helburu nagusia.



Ikasleek euren ondorioak azaldu zituzten. I. URKIZU


  
**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA EGUNKARIAN**  
 uztailean **PRAKTIKAK**  
 egiteko aukera

**TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO hitza** Info

Bidali zure curriculum  
**tolosaldean@hitza.info** helbidera

Tic Tac taldeak, *Maitetasuna* antzezlan eskainiko dute, eta Edurne Agirrezabalak, *Zintzilik* antzezlan. AMAIA PAGOLA

## Edurne Agirrezabala txapela berriz janzten saiatuko da

Bihar 22:30ean jokatuko da Asvineneako V. Poltsikoko Antzerki Lehiaketako finala; 27tik lau parte-hartzaile iritsi dira finalera

‘Maitetasuna’, ‘Eguzkilo’, ‘Zintzilik’ eta ‘El león y la cigala’ antzezlanak izango dira

**Eneritz Maiz** Aduna

Apirilaren 29an eman zioten hasiera Poltsikoko V. Antzerki Lehiaketari, eta kanporaketa guztiak pasa ondoren, egun handia iritsi da. Bihar jokatuko dute finala. 22:30ean izango da, eta lau antzezlanen artean aterako da aurtengo irabazlea.

Tic Tac taldearen *Maitetasuna*, Hortzakaren *Eguzkilo* lana, *El león y la cigala*, Pollo Rosa taldearena eta Edurne Agirrezabalaren *Zintzilik* lana izango dira finalean. Azkenak, iazko lehiaketa irabazi zuten.

Kanporaketa guztietan bezala, finalean ere, artista gonbidatua izango da. Kasu honetan, Amaia Caballero gonbidatu dute, dantza egingo du akrobaziekien batera. Eta saioa hasteko, antolatzaileek ezusteko txiki bat ere prestatu dute. Sarrera 10 eurokoa izango da.

27 antzezlan pasa dira lehiaketatik. Epaimahaia eta ikusleek izan dute guztietatik lau onenak aukeratzeko ardura. Horietatik bederati izan dira euskaraz eta horietako batzuk finalean sartzea ere lortu dute.

**«Inoiz baino maila altuagoa»**

Amaia Pagola Poltsikoko Lehiaketako antolatzaileetako bat da. Lehiaketaren nondik norakoan inguruan galdetean, «gustura» agertu da, bai antzezlanen mailarekin eta baita ikusleen erantzunarekin ere.

Aurreko lehiaketekin alderatuz, aurreko lehen kanporaketatik hasita jende asko gerturatu dela ikustera azaldu du. Lehiaketan parte hartzen dutenen taldeen aldetik berriz, «gero eta maila altuagoa dute». Batzuek jada eza gutzen dute lehiaketa, eta finalean iritsi diren lautatik hiru talde, iaz ere finalean izan zirela gogoratu du.

«Ondo prestatuta eta indartsu etorri dira asko» azpimarratu du Pagolak. «Nabaria da Aste Santuen inguruan antzerkigintzako ikastaroak izaten direla, eta jendea bertatik pasata, prestatuta daterrala. Lan politak prestatu dituzte». Hala ere, denetik egon dela azaldu du. «Parte-hartzailetako batzuk, parte hartu eta probatzeraz gerturatu dira», dio.

Bukatzean den V. Poltsikoko Antzerki Lehiaketako finalera, guztiak gonbidatu nahi izan ditu.



Eguzkilo lana egingo dute, Hortzakakoek. HITZA



El león y la cigala antzezlan egingo du Pollo Rosa taldeak. HITZA

## AHTren aurkako ekintzaileek zundaketa lanak oztopatu dituzte laginak kenduz

Hernialde eta Anoetako lurretako laginen kaxak ireki dituzte; Arrasateko manifestaziora joateko deia egin dute

**E. Maiz** Hernialde / Anoeta

Azken egunetan Abiadura Handiko Trenaren proiektuarekin lotutako zundaketa lanak burutzen ari dira Hernialde eta Anoeta arteko lurretan. Abiadura Handiko Trenaren aurkako ekintzaile talde batek, hilaren 6an, astelehenean, zundaketetan ateratako laginak gordeta zeuden kaxak ireki egin zituen. Ekintzaileek azaldu dutenez, «bertan gordetako lurrak berrituz lurrari bueltatu genizkion. Hori baita bere lekua! Horrela proiektua aurrera eramateko beharrezkoak dituzten datuak, eta egunetako lana pikutara botaz».

Ekintzaileen hitzetan, Hernialde eta Anoetako herritarrek AHTren aurkako jarrera argia azaldu dute askotan. «Anoetan, herri galdaketa baten bidez herritarrei iritzia emateko aukera eman zitzaieanean, herritarren iritzia AHTren aurkako zela argi geratu zen. AHTren bultzatzaileak Hernialdera joan direnean ere erantzun garbia eman diete bertako herritarrek, proiektu honen aurka azalduz».

Hala ere, herritarren hitza eta erabakiaren gainetik, «proiektu hau inposatzen jarraitzen dute» diote proiektuaren aurkakoek. «Euskal Herriak behar duen garraio azpiegituraren inguruan eztabaida zabalduta beharrean, proiektu txikitzaile hau inposatzen dute». Era berean, galdera sorta luzatzen dute: «Euskal Herritarrok zer pentsatzen dugu proiektu honen inguruan? Zergatik ez zaigu iritzia galdetzen? Krisi egoera honetan, bere kostua ikusita AHT lehentasuna al da? Herritarrok ez al ditugu beste behar urgenteago batzuk? AHT kostako den dirutza ezin al genezake herritarren benetako arazoak konpontzeko erabili? Diru guzti horrekin herritarren onurarako diren politika sozialak ezin al dira hobetu?».

Galdera guzti hauek zintzilik daudela gogoratu dute, eta beraien erantzun garbia dela: «Inposaketa». Herritarrei deia luzatu diete AHTren aurkako borrokan jarrera aktibo bat izateko. «Denon laguntza eta indarra beharrezkoa» da diote. Horregatik, deia luzatzen dute larunbatean, ekainak 11, Arrasaten burutuko den manifestaziora joateko.

# Auto lasterketen zaletuak elkartuko dira larunbatean



Auto lasterketen zaleek euren autoak eramango dituzte Ibarra plaza. HITZA

‘www.maskarreras.com’ webguneak antolatuta, 35 autotik eta 50 lagunetik gora lagunetik gora bilduko dira

Imanol Garcia Ibarra

Auto lasterketako zaleen bilgune izango da Ibarra larunbat honetan. 35 ibilgailu baino gehiago eta 50 lagunetik gora elkartuko dira herriko plazan. Autoen topaketa [www.maskarreras.com](http://www.maskarreras.com) webguneak antolatzen du, eta Egoitz Prieto ibartarra da ekimenaren sustatzailea. Prietok azaldu duenez, «Ibarra afizio asko dago

auto lasterketen inguruan. Gidariak ere badaude. Horregatik Ibarra topaketa egitea pentsatu dugu, mundu honetan ibiltzen direnak elkar gehiago ezagutzeko eta ingurukoak ez direnek herria bera ere ezagutzeko».

Internet bidez edo auto lasterketetan topatzen direnak biltzeko helburuarekin antolatu dute ekimena. Prietok dioenez, «larunbatean elkarrekin lasaia egoteko aukera izango dugu. Besteen autoak ikusi, autoei eta auto lasterketei buruz hitz egin...». Auto lasterketen zaletasunak *tuning*arekin ez duela zerikusirik dio ibartarrak: «*Tuning* estetika begiratzen dio gehiago. Gure autoei piezak aldatzen dizkiegu ho-

beto joateko, egonkortasun gehiago izateko, adibidez». Topaketara auto lasterketetan aritzen diren pare bat auto ere agertzeko asmoa dute.

Autozaleak 09:30etik aurrera elkartuko dira Ibarra plaza. Eguerdia arte bertan izango dira eta gero Ikaztegieta aldera abiatuko dira, bertan bazkaltzeko. Arratsaldean Azpeitira joateko asmoa dute eta gero handik Ibarra itzuliko dira berriro. Herri batetik bestera joatean inguruko rally ezagun batzuen ibilbideetatik igaroko dira. Bazkarirako txartelak agortuta daude, baina nahi duen oro gonbidatzen dituzte topaketaren beste ekitaldian parte hartzera.

## Irudia Gaztelu eta Oresa



## IKASTURTE AMAIERAKO YOGA SAIOA

Urtean zehar, Gaztelu eta Oresa herrietan, yoga ikastaroak jaso dituzte. Ikasturteari amaiera emateko, Gaztelun yoga saio bat egin zuten bi he-

rietako ikasleek. Horren ondoren afaria egin zuten elkarrekin Erroizpe Azpiko kirol eta kultur elkartearen. HITZA

## Gutuna

### Partaidetza handiko Uzturpeguna

Uzturpe ikastolako zuzendari-tza taldeak Uzturpe ikastolaren jai ospatzen parte hartu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkie. Guraso, langile, irakasle eta ikasleei antolaketan lagundu eta umore ona jarriz festa alaitu zutelako; Zumeta bizitegiari bere loreak utzi zizkigulako jaialdia apaintzeko; Laskorain ikastolari paellarengatik; Sendi Ekintzari sukalde tresnengatik;

Oresa Udalari mahai eta aulkiengatik; Zubiaurre tabernari txartelak saltzeagatik; eta Ibarra Udalari bere azpiegitura eta bitartekoak utzi zizkigulako.

Pertsona eta erakunde guzti horiengatik ez balitz izan ezin izango genukeen hain egun ona igaro. Mila esker berriro ere.

■ **Miren Maite Iburguren.** Uzturpe ikastolako zuzendaria.

## → Laburrak

### Ibarra Kirol Elkarteak asanblada du bihar

**IBARRA** › Urtero bezala, Ibarra Kirol Elkartearen lehenengo sei hilabetei dagokion asanblada egingo dute. Bilerari bihar izango da, elkartearen egoitzan. Asanblada 21:00etan hasiko da eta bazkideei puntualtasuna eta bilerara azaltzea eskatzen die zuzendaritzak, ahalik eta partaidetza handiena lortu ahal izateko. Bide batez, zuzendaritzak alde aurretik eskertzen die biharko bilerara joango diren bazkideei.

### Bi liburu salgai dituzte udaletxean

**AMEZKETA** › Amezketako Udalak ohar baten bidez jakinarazi duenez, argitaratu berri diren eta Enirio-Aralar Mankomunitateari eta Amezketari buruzkoak diren bi liburu salgai daude udaletxean bertan. Horietako bat Enirio-Aralar Mankomunitatearen 600. urteurrena dela eta Alfredo Morazak idatzitako lana da. Liburua 10 eurotan erosi daiteke, euskaraz nahiz erdaraz. Bestea Joxe Mari Otermin amezketarrak idatzitako *Amezketak, etxez etxe* liburua da. Oraindik ale batzuk gertzen dira. Obra hori 15 eurotan eskura daiteke.



### PUNTU ESTRAK (irailera arte)



8 puntu



Erosteagatik lortzen diren puntuez gain...



3 puntu



produktu hauek **puntu estrak** dituzte.

# Antziola baserriaren aldeko herri kirol jaialdia izango da Berastegin

Jaialdia larunbatean izango da, 17:00etatik aurrera, elizako zabalgunean; sarrera 10 euro kostako da

**M. Ugartemendia** Berastegi

Apirilaren 15ean Berastegiko Antziola baserria erabat kiskalita geratu zen. Momentu oro herritarrek beraien babesa azaldu diete, eta orain laguntza emateko herri kirol jaialdi bat antolatuta dute. Jasotzen den dirua Antziolako familiarentzat izango delarik.

Jaialdia larunbat honetan izango da, 17:00etatik aurrera eta bertan herriko nahiz eskualdeko hainbat kirolariek parte hartuko

dute. Ekitaldia elizaren zabalgunean izango da. 10 euroren truke jaialdi polit bat ikusteko aukera izango da, eta bide batez, laguntza emateko aukera bikaina izango da.

Aizkolariak, harri-jasotzaileak, segalariak, lasto-altxatzaileak, sokatirakoak eta gizon probalariak ariko dira jaialdian. Aipatzeko da, alde batetik, segan Ion Matxinea eta Unai Garaiburu herriko gazteak ariko direla. Eta bestetik, ezohiko ekitaldi bat ere izango dela, izan ere, 1776 kiloko *Berastegiko harriarekin* harritira egingo dute; herriko gazteak Izeta idi parearen aurka lehiatuko dira. Antziolako familiari lagunduz, herri kirol jaialdi on bat ikusteko aukera bikaina izango da, beraz, larunbat honetan.

## ↓ Herri kirol jaialdia

### EKAINAK 11, LARUNBATA

- **Aizkolariak.** Agirre, Mujika, Otaño, Belauntzarán, Pellejero, Redondo, Arrospide, Arakama, Otaegi eta Ruben Saralegi.
- **Harri-jasotzaileak.** Aimar Irigoien, Izeta aita- semeak eta Perurena aita- semeak.
- **Segalariak.** Ion Matxinea eta Unai Garaiburu.
- **Lasto-altxatzaileak.** Andoni Agirreurreta eta Pello Argaña.
- **Sokatira.** Ibarra sokatira taldea.
- **Berastegiko harria.** Izeta idi pare, Berastegiko gizon proba taldearen aurka ariko da.



Berastegiko gizon proba taldea eta idi pare elkarren aurka ariko dira, *Berastegiko harriarekin*. HITZA

# Bai Euskarari Ziurtagiriaren ebaluazioa egingen da Leitzaldean

Urtebetera Bai Euskarari Elkartekoek adostutako konpromisoak bete diren aztertuko dute

**Erredakzioa**

Ekainean zehar Bai Euskarari Ziurtagiriaren ebaluazioa egingen da Leitzan eta Areson. Elkarrean teknika den Mainer Ansa Leitzan eta Areson Bai Euskarari Ziurtagiria duten entitate guztiengana joanen da ziurtagiri horren ebaluazioa egitera eta ziurta-

giria berritzera. Gaur egun 30 ziurtagiri daude Leitzan eta 4 Areson.

Leitza eta Areso 2004. urtetik daude ekimen honen barruan. Herri euskaldunak izan arren, Kontseilutik euskararen normalizazioan euskalgintzan, udallean eta bestelako eragileetan aurrerago joan zitekeela ikusi baitzuten.

Teknikaria, lehen esan bezala, ziurtagiri bakoitzarekin banan-banan elkartuko da eta ziurtagiriaren ebaluazioa egingen du. Ebaluazio horretan jasotakoa Ziurtagiriaren elkartera bidaliko du eta ondoren elkartea bera iza-

nen da ziurtagiria berritu daitekeen erabakiko duena, edota ziurtagiriaren maila aldatu behar ote den esamen duena. Urtebete barru, aurtan adostutako konpromisoak bete diren ikusiko dute, eta euskararen erabilera urrats praktikoa eta eraginkorra ematea espero dute. Alegia, aspaldian hasitako bideari eusten diotela eta aurrera egiten jarraitzen dutela ikustea espero dute.

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Garajea.** Iruran 120 metro karratuko lokala alokatzen da, gune industrialean kokatua. Oso egokia eta aproposa da hainbat eginkizunetarako. 500 euro hileko. Interesatuak, deitu 619 34 93 85 telefono zenbakira.



14 urte arteko Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala. HITZA

# Leitzarrak bikain aritu dira bertsoan

Xabat Iñarregi, leitzarrak, Nafarroako Bertso Paper Lehiaketan lehenengo saria eskuratu du

garrena Doneztebeko Beatriz Maritorea izan zen. Bazkalostean, hainbat jolas egin zituzten bertso eskoletako kideek. Azkenik, dantzaldi batekin eman zioten amaiera aurtengo Bertso Eskolen Egunari.

**M. Ugartemendia** Leitza

### Bertso paper lehiaketak

Leitzako eta Aresoko gaztetxoek Nafarroako eskolarteko nahiz bertso paper lehiaketetan parte hartu dute, eta gainera, oso emaitza onak lortu dituzte.

Alde batetik, pasa den asteburuan Larraintzarren Nafarroako Bertso Eskolen eguna ospatu zuten, eta honen barruan 14 urte arteko Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala jokatu zuten. 50 bat haur eta gaztetxo elkartu ziren bertan, eta Nafarroako Bertsozale Elkartearen arabera «giro onean eman zuten egun osoa».

Guztira hamabi gaztetxok parte hartu zuten aipatu finalean, horietatik bost leitzarrak: Joanes Iñarregi, Beñat Altzelai, Saioa Manteorena, Xabat Iñarregi eta Oier Altzelai. Azkenean, bigarren urtez jarraian Maddalen Lopez lesakarrak lortu zuen txapela, eta bi-

Azken asteetan eskualdeko nahiz Nafarroako bertso paper lehiaketak ere izan dira. Nafarroako mendebaldeko Bertso Paper Lehiaketan leitzarrak eta aresorarrak sarituak izan dira eta aipamenak jaso dituzte.

Lehenengo saria Xabat Iñarregi, Beñat Altzelai, Martxel Itxausti eta Ibai Zugarramurdi leitzarrek jaso zituzten, bakoitzak bere kategorian. Aipamenak bertsozari hauek jaso zituzten: Unai Artola eta Beñat Etxezarreta aresorrek, eta Oier Altzelai, Joanes Iñarregi, Saioa Manteorena, Izar Ugartemendia, Leire Erbiti eta Beñat Urkiola leitzarrek.

Nafarroako Bertso Paper Lehiaketako A kategorian Xabat Iñarregi lehenengo saria jaso du. B kategorian bigarren eta hirugarren sariak jaso dituzte Beñat Altzelai eta Joanes Iñarregi, leitzarrek, hurrenez hurren.



Bertso Paper Lehiaketan parte hartu duten bertsolari gazteak. HITZA

**Beti Añai**  
jatetxea

Garaian garaiok janariak  
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

## Publierreportajea → Tolosaldea Goimailako Institutua

Bihar da Tolosaldea Goimailako Institutuan aurrematrikula egiteko azken eguna

Ikasturtea amaitzear den honean, Tolosaldea Goimailako Institutua datorrena prestatzen ari da. Aurrematrikula epea bihar amaituko da, eta matrikula epea, aldiz, uztailaren 4tik 8ra izango da.

Institutuak Lanbide Heziketa eskaintzen du, eta ikasturte honetan 375 ikasle aritu dira bertan. Formazio guztia euskaraz eskaintzen dute, eta klaseak goizez izaten dira.

Klaseak emateko jarraitzen duten metodologia praktikoa da oso: *Eginez ikasi* izeneko metodologia darabilte. «Oinarriko formazioa jaso ondoren, azterketak nola egin, antolaketa, ardura banaketa, lan taldean aritzea, erabakiak adostea, eta abar bezalako gaiak lantzen ditugu, horrela ikasleek lanak egiteko autonomia lortzen dutelarik», esan du Gorka Igartua institutuko zuzendariak.


### Eskaintza

Institutuak hiru arlotan banatutako eskaintza du: Heziketa Zikloak biltzen dituen **Heziketa Arautua**; langabetuei zuzendutako **Heziketa Okupazionala**; eta lantegiei eta langileei zuzendutako **Etengabeko Heziketa**.

Datorren ikasturtean **ikasleei zuzendutako 10 Heziketa Ziklo** izango dituzte; 4 erdi mailakoak eta 6 goi mailakoak, eta hauetan bada berrikuntzarik: **Mikroinformatika-Sistemak eta Sareak**. «Informatika mailan orain arte gabezi bat genuen, eta erdi mailako arlo hori eskainiko dugun», azaldu du. Beste zikloei dagokionez hauek industria arlokoak, administratzailekoak, informatikaokoak, elektrizitatekoak, mantentze lanetakoak, mekanikakoak, eta galdaragintzaokoak dira.

➔ **Heziketa Okupazionala**, berriaz, **langabetuei** begira da. Beharrak eta gabeziak jasotzen dituzte, eta Tolosaldea Garatzen eta Lanbiderekin hitz egin eta gero, bultzatu beharreko formazio mota garatzen dute. «Formazio hau emateko diru laguntzak bilatzen ditugu, praktikak aurkitu, eta abar», argitu du Igartua. Urtero 3 eta 5 ikastaro arteko eskaintza dute, eta ikastaroak 150 eta 600 ordu arteko iraupena izaten dute. Aipatu moduan, ikastaro bukaeran lantegietan praktikak egiteko aukera izaten dute ikasleek.

➔ **Langile eta langabetuentzat** berriz, **Etengabeko Heziketa** deritzona garatzen dute. «Urte guztian zehar eskaria jasotzen dugu, enpresak eta langileek du-



Gorka Igartua da Tolosaldea Goimailako Institutuko zuzendaria. R. CALVO

## ‘Eginez ikasi’ metodologiari esker, autonomia, formazioa eta praktikak eskutik

ten formazio beharrak jasotzen ditugu, eta orain, uztaila hasieran, hori guztia aztertu eta datu horiekin erabakitzen dugu datorren urtean zer eskainiko dugun. Urriatik aurrera hasten gara ikastaro hauekin, eta gutxi gorabehera urteko 50 bat eskaintzen ditugu», dio. Kudeaketa beraiki egiten dute, eta doanekoak dira.

Formazio atal honi dagokionez, eta enpresei begira, lantegiek badute heziketa mota hau bultzatzeko diru laguntza bat eta Tolosaldea Goimailako Institutuak ikastetxe bezala bi eskaintza ditu: Formazioa eta behar izanez gero, kudeaketa.

Lantegiei begira jarraituz, hauek dira eskaintzen dituzten zerbitzuak: Heziketa eskaintzeaz gain, praktikak bultzatzen dituzte, eta lantegiei eskolako ikasleekin lan poltsa osatzen laguntzen diete. Era berean, lantegiei heziketa gabezien diagnostikoak egiten laguntzen diete, eta

elkarlanean laguntza teknologikoak burutzen dituzte, hau da, ikastetxe baliabide eta instalazioak erabiliz enpresak behar dituen lan teknologikoak institutu bertan egin ditzakete.

### Erronkak

Datorren ikasturterako erronka berriak ere badituzte Tolosaldea Goimailako Institutuan. Batetik, **zikloetako ikastaroak ingeleraz emango** dituzte.

Bestetik, **Lehiberri lantegien konpetitibitate** foroan ari dira parte hartzen, eta horrela enprekin loturak sendotzen dituzte, eta institutuak bere zerbitzuak eskaintzen ditu (formazioa, laguntza, praktikak, lan poltsa eta abar).

Azkenik, ikasleentzat osagarri diren **zeharkako formazioa** eskaintzen dute; karretilen eta gruaren erabilera, sorosmen ikastaroa, desfribiladoreen eta su-itzalgaileen erabilera...

➔ Arestian aipatu moduan aurretengoa berrikuntza bezala, **ingelera** nabarmendu du behar da. Izan ere, zikloetako moduluak ingeleraz emango dituzte.

«Irakasleak prest ditugu eta ikasleak matrikulatzen badira, ekintza garrantzitsu haur errealtate egingo dugu», dio zuzendariak. «Ahalegin berezia egiten ari gara aurrematrikula garaian, ikasleei ingelesaren garrantzia ohartarazteko. Ikasleek eskolaz ingelesez jasotzeko, interes maila ikusten dugu lehenik, eta ondoren, maila zehazteko, eskolan bertan eta eskolako irakasleek frogatzen dituzte, horrela taldea osatu ahal izateko», gaineratu du.

Igartuak ingelesaren beharra nabarmendu du, hiru arrazoiengatik: «Ingelesa eskolan bertan indartzen dugulako, praktikak egiterako unean atzerria joateko prestatzeko eta atek irekitzeko, eta lan munduan kokatzeko momentuan gaur egun ia ezinbestekoa delako zerbait lanpostutan».

Berrikuntzen atalekin bukatzeko, **TKNIKA** Berrikuntza Teknologikoko Zentroa aipatu behar da.

Institutuko irakasleek gaiak ➔ ikertzen eta irakaskuntzan era egokian txertatzeko prestatzen ari dira **TKNIKA**ren barruan. Ikastetxe baliabide berriak lortuz, irakasleen prestakuntza hobetuz, ikasleak, langabetuak, eta langileak dira ematen den formazioaren onura jasotzen

### ↓ Eskaintza berezia ingeleraz emateko

#### 2011-2012 IKASTURTEA

##### ■ Instalazio elektrikoak eta automatikoak (IE2).

Erdi maila, 1. ikasturtea, eta eguzki instalazio fotoboltoikoak (M-08).

##### ■ Sareko informatika sistemen administrazioa (AS3).

Goi maila, ikasturtea, eta sistema eragileen ezarpena (M01).

##### ■ Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak (SR3).

Goi maila, ikasturtea, kontrol sekuentzialeko sistemak (M01), eta neurketa eta erregulazio sistemak (M02).

##### ■ Fabrikazio mekanikoko ekoizpenaren programazioa (PP3).

Goi maila, 2. ikasturtea, eta fabrikazio mekanikoko sistema automatikoen programazioa.

##### ■ Metal eraikuntzak (CM3).

Goi maila, 2. ikasturtea, eta fabrikazio mekanikoko sistema automatikoen programazioa (M05).

dukenak. Ikastetxean energia arrazteko auditoria egin dute, eta kontsumoaren murrizketa lortzeko eta kontrolatzeko zenbait ekintza egin dute, ikastetxe elektrizitate kontsumoa eta erregaia gutxituz.

### Jardunaldiak

Heziketa ziklo, ikastaro, eta bestelako jarduerekin batera, Tolosaldea Goimailako Institutuak jardunaldiak ere antolatzen ditu, ikasitakoaren inguruan gehiago sakondu ahal izateko.

➔ Datorren jardunaldi teknologikoa ekainaren 16an izango da, eta bertan **Energia Eraginkortasuna** landuko dute. 11:00etan hasiko da jardunaldia, ikastetxe areto nagusian, eta parte hartu nahi duenak aurretik institutura deitu beharko du (943 65 11 47). Jardunaldiaren helburua energia-nahikotasuna lortzea da, eta horretarako honako egitaraua prestatu dute: 11:00etatik 11:15era jardueren aurkezpena egingo dute; 11:15etik 11:30era energia elektriko eta berokuntza kontsumoa arrazteko gakoak emango dituzte, batetik, eta bestetik, berokuntza sistemen kontrola eta kudeaketa izango dituzte; 12:00etatik 12:20era ikastetxeko instalakuntzen bisita egingo dute; eta ondoren hamaiketako banatuko dute.

Aurreragorako ere beste jardunaldi bat antolatzen ari direla aurreratu du Igartua; mekanika eta galdaragintza bideratutako metrologia eta saiakuntza landuko dituzte bertan.

### ↓ Matrikula

#### ■ Aurrematrikula epea.

Bihar bukatuko da aurrematrikula egiteko epea. Matrikula egiteko beharrezkoa da, aurrematrikula egitea.

#### ■ Matrikula epea.

Uztailak 4tik 8ra.

#### ■ Nora jo.

Tolosaldea Goi Mailako Institutua: Santa Luzia, 17, Tolosa.

#### ■ Telefono zenbakia.

943 65 11 47.

#### ■ Webgunea.

www.tolosaldea.com.

#### ■ Emaila.

idazkaritza@tolosaldea.com.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Baliarrain,  
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**DEIALDIAK**

■ **Anoeta.** Ezker abertzaleak sailheski jatea antolatu du ekainaren 24rako. Tikitak herriko tabernetan daude salgai; langileek 12 euro ordaindu behar dute, eta langabetu edo ikasleek, aldiz, 8 euro.

■ **Bedaio.** Harri Jaia gaur: 11:00etan meza nagusia izango dute Andra Mari Jaiokundearen elizan, eta prozesioa ere egingo dute; ondoren hamaiketako banatuko dute; 14:00etan bazkaria izango da Abaetxe jate-txean; ondoren, Mañukorta eta Zeberio bertsolariak, eta trikitalariak izango dira; eguna bukatzeko ganean afaria egingo dute Artubi elkartean.

■ **Ibarra.** Legealdi honetako azken osoko bilkura gaur, 10:00etan.

**ERAKUSKETAK**

■ **Tolosa.** Zipristin keramika erakusketak Aranburu jauregian ekainaren 11 bitarte.

■ **Alegia.** Garai bateko Alegiako argazkiak Jubilatuen tabernan hilabete bukaera arte.

■ **Larraul.** Pisuak eta balantzak biltzen dituen erakusketak bisitatu daitezke Ekomuseoan iraila bitarte.

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**



**Zorionak Jone!**

Gure neska politik 4 urte bete ditu gaur, eta horregatik muxu handi-handi bat bidaltzen dizugu familiakoak. Ondo ospatu zure eguna!

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...



**Irudia Tolosa**



**589 IKASLE, BERTSO PAPER LEHIAKETAN**

Astlehenean banatu zituzten Tolosako lurre Elkartean Bertso Paper Lehiaketako sariak. Hirugarren edizio honetan, Samaniegoko, Laskoraingo, eta Hirukide-Jesuinitakoko 589 ikaslek hartu dute parte, banaka zein taldeka. Hauek izan dira saridunak: Beñat Urkola; Arakaitez Ziganda eta

Unai Zabala; Ana Jauregi eta Naroa Jauregi; Ane Iraola, Patricia Larrarte eta Izaro Perurena; Ainhoa Tolosa eta Naia Otaegi; eta Josu Postigo eta Julen Larrauri. Armaia Agirre bertsolariak, Ainhoa Etxeberria udaleko Euskara zinegotziak, eta Alex Perurena lurreko kideak eman zituzten sariak. HITZA

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO** hitza info  
bertako egunkaria  
egin zaitetz harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldea.hitza.info  
www.leitzaldea.hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behe, atzea - 20400 Tolosa

beharezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ •NA: \_\_\_\_\_

•Lanbidea: \_\_\_\_\_ •Jaioteguna: \_\_\_\_\_

•Helbidea: \_\_\_\_\_ •Herria: \_\_\_\_\_

•P.K.: \_\_\_\_\_ •Tel.: \_\_\_\_\_

•Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

•Kontu zenbakia: